

## NOLAKO FAKULTATEA NAHI DUGU?

**Ikasleei gonbidapena.**

Fakultatean ireki den Hausnarketa prozesuaren baitan, ikasleen ikuspegiak jaso nahi dira, eta horretarako, beste batzuren artean, ikasleek beren kaxa bideratuko duten elkarriketarako topaketa irekia egin nahi da. Topaketa Gune Irekiaren metodologia (Open Space Technology, ingelesez) erabiliz egingo da.

**PROZESUA:** Ikasleen arteko Gune Irekiaren topaketa abenduaren 15ean egin nahi da, 10etatik 14etara, eta Open Space metodologian aritzen den kanpoko dinamizatzaile batek gidatuko du. Topaketa arrakastatsua izan dadin, talde motorra antolatuko da nahi duten ikasleekin. Talde honen eginkizuna Dinamizatzailearekin batera saioari modu autonomoan forma ematea eta tokia prestatzea izango da.

**Animatu!** Eman izena talde motorrean parte hartzeko posta bat bidaliz **Mariaje Parrasi** ([mariaje.parras@ehu.eus](mailto:mariaje.parras@ehu.eus)) azaroaren 24ean baino lehen.

Talde motorraren lehen bilera azaroaren 27an egingo da. Bileran horretan izena eman dutenek dinamizatzailearekin elkartuko dira Gune Irekiaren metodologia ezagutu eta saioari forma ematen hasteko. Partehartzaileek ziurtagiria jasoko dute.

## ¿QUÉ FACULTAD QUEREMOS?

**Invitación al alumnado.**

Dentro del proceso de Reflexión que se ha abierto en la Facultad, se quiere recoger la visión del alumnado, y para ello, entre otros, se va a organizar una jornada abierta organizada autónomamente por el alumnado. La Jornada tendrá un formato en base a la metodología de Gune Irekia (Open Space Technology).

**PROCESO:** Se prevé realizar esta jornada de Gune Irekia del alumnado el 15 de diciembre, de 10:00 a 14:00, y será dinamizada por dinamizador externo a la Facultad con experiencia en Open Space. Para la preparación de la sesión se creará un talde motorra con alumnado que se apunte a este grupo dinamizador. La función de este talde será dar forma de manera autónoma junto al dinamizador a la Jornada y preparar los espacios.

**Animatu!** Apuntate al grupo motor enviando un correo a **Mariaje Parras** ([mariaje.parras@ehu.eus](mailto:mariaje.parras@ehu.eus)) antes del 24 de noviembre.

La primera reunión del talde será el 27 de noviembre. En ella se reunirán los/as alumnos/as con el dinamizador para conocer la metodología de open space y comenzar a preparar la Jornada. Los/as participantes recibirán un certificado.

## HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA FAKULTATEAN

Irailaren 27ko Fakultateko Batzarrean onartutakoari jarraituz, HEFA gure fakultate berriaren Plangintza Estrategikorako hausnarketa prozesua abiatu dugu. Prozesu horretan hiru tailer egingo dira, lehena datorren astean, azaroaren 22an, bigarrena abenduan eta hirugarrena urtarrilean. Horretaz gain, on-line galdetegi txiki bat ere prestatuko da tailerretan parte hartuko ez dutenek beren ekarpenak egin ditzaten. Lehen tailerrera bereziki deituak izan dira Fakultate Batzarreko kideak, titulazio koordinatorak eta sailtako zuzendariak, baina horietaz gain beste edonork parte hartu nahi badu, bidal diezaiola posta bat **Uxue Urruzolari** ([usue.urruzola@ehu.eus](mailto:usue.urruzola@ehu.eus)) astearte baino lehen.

## REFLEXIÓN ESTRATÉGICA EN LA FACULTAD

Tal y como se aprobó en la Junta de Facultad del 27 de septiembre, hemos iniciado el proceso de reflexión para la Planificación Estratégica de esta nuestra nueva facultad HEFA. En este proceso se realizarán tres talleres, el primero la semana próxima, el 22 de noviembre, el segundo en diciembre y el tercero en enero. Además, se distribuirá un pequeño cuestionario para recoger diferentes aportaciones. Al primer taller han sido convocadas especialmente las personas que componen la Junta de Facultad, coordinadores/as de grado y directores/as de departamentos, pero, cualquier otra persona que tenga interés por participar puede enviar un correo a **Uxue Urruzola** ([usue.urruzola@ehu.eus](mailto:usue.urruzola@ehu.eus)) antes del martes.

## MINTEGIA / SEMINARIO: AGENCIA HUMANA, RESPONSABILIDAD Y CONTROL EN EL ANTROPOCENO

**Noiz/Fecha:** 2017ko azaroak 20 noviembre

**Non/Lugar:** HEFA Fakultateko Batzar Aretoan / Sala de Juntas de HEFA  
Filosofía eta Antropología Fakultatea. (Eraikin I Av. Tolosa 70).

**EGITARUA/ PROGRAMA**

## MUGIKORTASUN PROGRAMEN INGURUKO BILERA INFORMATIBOA

Mugikortasun programen inguruko (Erasmus, Latino Amerika, Sicue eta Beste Norakoak) oinarriko informazioa eskaintzeko asmoz bilera bat antolatu dugu.

**Non:** HEFA Eraikin I ko Gradu Aretoan

**Eguna:** Azaroak 23, osteguna.

**Ordua:** 12:00 (euskaraz) 13:30 (gaztelaraz) **Kontaktua:**  
[nere.amenabar@ehu.eus](mailto:nere.amenabar@ehu.eus)

## REUNIÓN INFORMATIVA PROGRAMAS DE MOVILIDAD

Dirigido al alumnado interesado en participar en algún programa de movilidad (Erasmus, América Latina, SICUE y Otros Destinos) para el curso académico 18/19.

**Lugar:** Salón de Grados HEFA Edificio I

**Día:** 23 noviembre, jueves

**Hora:** 12:00 (euskaraz), 13:30 (castellano). **Contacto:**  
[nere.amenabar@ehu.eus](mailto:nere.amenabar@ehu.eus)

## "EUSKAL DANTZA: TRADIZIOTIK SORKUNTZARA", EHUko IKASKETA OSAGARRIAK DONOSTIAN

Ikasketa hauekin euskal dantzen ikaskuntza akademikoan dagoen hutsunea bete nahi da pixkanaka. **Dantzari eta irakasleei heziketa osagarria** eskaintzea da asmoa, beraien dantza jardueren ezagutzan sakontzen laguntzeko. Dantza tradizionalaren oinarriak landuko dira, baina baita zenbait errepertorio adierazgarri ere, alor bakoitzeko irakasle espezialistekin. Ikasketa osagarri moduan planteatuta, **10 kreditu ditu ikastaroak**.

**INFORMAZIO GEHIAGO**

## XVII ZIENTZIA ASTEA

Gure Fakultateko hainbat irakaslek eta ikaslek azaroaren 9tik 11 bitartean Donostiako Tabakalera eraikinean EHU/UPVk antolatu duen XVII Zientzia Astean parte hartu dute stand batean, bi irteeretan, haurrei zuzendutako tailer batean (bi saio) eta Zientzia Club monologoetan.

## XVII SEMANA DE LA CIENCIA

Desde el 9 hasta el 11 de noviembre varias profesoras/es y alumnas/os de nuestra Facultad han participado en la XVII Semana de la Ciencia organizada por la EHU/UPV y celebrada en el edificio Tabakalera de Donostia en un stand, dos salidas, un taller dirigido a niñas/os (dos sesiones) y en los monólogos de Zientzia Club.

## BESTELAKOAK - OTROS

- [17/18 Ikasturterako Eusko Jaurlaritzak Nazioarteko Mugikortasun beka eskatzeko deialdia / Convocatoria de beca de movilidad internacional del Gobierno Vasco del curso académico 2017-2018.](#)
- [HEIZE VI. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK Azaroaren 23an Donostiako Barriola Zentroaren areto nagusian IZENA EMATEKO/ EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN VI JARDUNALDIAK - LIDERGOA & AUTONOMIA & PARTEHARTZEA.](#)
- [Azaroaren 20an, HEFAko Eraikin Ieko Gradu Aretoan, 12:00etan, SAREk antolatuta, "Motxiladun umeak"](#)

## OHAR GARRANTZITSUA

Fakultateko kide guztiek (ikasleak eta AZP barne) buletin hau erabili dezakete antolatutako ekitaldien edo jardueren berri emateko. Beraz, fakultateko kideen artean halako berriren bat zabaldu nahi baduzu, buletinean txertatu nahi duzun testuarekin (JPG, BMP o GIF formatuko argazkiekin, dokumentuekin,...) batera, bidal ezazu mezu bat [mariaje.parras@ehu.eus](mailto:mariaje.parras@ehu.eus) edo/eta [nere.amenabar@ehu.eus](mailto:nere.amenabar@ehu.eus) helbidera.

## AVISO IMPORTANTE

Todo el personal (incluido alumnado y PAS) de la facultad puede hacer uso de este boletín para informar acerca de eventos y actividades que organice. Si estás interesado en que los miembros de la facultad tengan conocimiento a través del boletín de dichas noticias, envía un mensaje (junto con fotografías en formato JPG, BMP o GIF, documentos...) a [mariaje.parras@ehu.eus](mailto:mariaje.parras@ehu.eus) y/o [nere.amenabar@ehu.eus](mailto:nere.amenabar@ehu.eus)

Si deseas darte de BAJA en el BOLETIN envía un [email](#) con el asunto Baja boletin Buletinetik BAJA emateko [email](#) bat idatzi gaia Baja buletina idatzi

Eraikin I, Av. Tolosa, 70 - Teléfono: 94301 8260  
Eraikin II, Oñati Plaza, 3 - Teléfono: 943 01 8446